

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21ean egindako bilkuran, Enplegua Sustatu eta Auzolanberri IV programan dauden langabeak kontratatzeko dirulaguntza eskaera onartu du.

Erabakia finkoa da eta amaiera eman dio administrazio bi-deari.

ERABAKIAREN AURKAKO ERREKURTSOAK

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

— Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

— Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

— Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

— Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

— Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

— Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Usurbil, 2022ko uztailaren 21a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (5216)

AUZOLANBERRI IV DIRULAGUNTZAREN
LEHENENGO EBAZPEN PROPOSAMENA

IKUSIRIK

2022ko apirilaren 4ean argitaratu ziren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN Enplegua Sustatu eta Auzolanberri IV programan dauden langabeak kontratatzeko dirulaguntzaren oinarriak, eskærak aurkezteko epea hurrengo egunetik hasi da 2022ko azaroaren 30 arte.

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, en su reunión celebrada el día 21 de julio 2022, acordó la aprobación de la subvención para la promoción de empleo y ayudas para la contratación de personas desempleadas del programa Auzolanberri IV 2022.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

RECURSOS CONTRA EL ACUERDO

Contra el mismo podrá interponerse recurso potestativo de reposición o recurso contencioso-administrativo.

a) Antes de acudir a los tribunales, el solicitante podrá, si así lo desea, interponer recurso de reposición de conformidad con lo establecido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Plazo: Un mes, a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

— Dónde: Ante la Junta de Gobierno Local.

b) En otro caso, podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo en los términos previstos en los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

— Plazo: Dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

— Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.

c) Para recurrir la resolución del recurso de reposición:

— Plazo: Dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación de la resolución del recurso de reposición.

Si, por el contrario, la Administración no contestase al recurso de reposición, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que se produzca la acción presunta conforme a su normativa específica.

— Dónde: Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia.

Usurbil, a 21 de julio de 2022.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (5216)

PRIMERA PROPUESTA DE RESOLUCIÓN
SUBVENCIÓN AUZOLANBERRI IV

VISTO

Con fecha 4 de abril de 2022 se publicaron en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las bases de la subvención para la contratación de personas desempleadas incluidas en el Programa Fomento del Empleo y Auzolanberri IV, el plazo de presentación de solicitudes comienza desde el día siguiente hasta el 30 de noviembre de 2022.

Diru-laguntza hau egoitza soziala edo lantokia Gipuzkoan duten enpresei zuzendua dago, Beterri Buruntza eskualdean Auzolan Berri IV. programan parte hartu duten eta programa hori gainditu duten langabeak kontratatzeko.

Pertsona onuradunak izango dira Eraikuntzako estaldura arin eta teknikoan oinarrituko eragiketak 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria gainditu dutenak eta kontratua formalizatzen orduan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan langabezian dagoen eska-tzaile gisa inskribatuak daudenak.

Dirulaguntza honen oinarrietako 5. artikuluan zehazten da ebazpenak bi epeetan emango direla:

– Lehen ebazpena: 2022ko uztailaren 15a arte aurkeztu eta kontratazioak formalizatuta dituzten eskariena.

– Bigarren ebazpena: 2022ko azaroaren 30a arte egiten direnekin eta kontratazioak formalizatuta dituzten eskariena.

Lehenengo epearen barruan eskaera bat jaso dugu, 2022ko uztailaren 14ean sarrera duen Gipuzkoaplak S.Coop Pequeña-rena hain zuzen ere.

Enpresa eskatzaileak, dirulaguntza honen onuradun izateko 3. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu da eta baita ere kontratua izan den pertsonak 4. artikuluan zehazten diren betekizunak.

Diruz lagundutako kontratazioei dagokionean gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango da lanaldi osoan. Kontratu mugagabe bat egin diote kontratatuari, lanaldi osora eta hiru hilabeteko epea igaro denean aurkeztu dute eskabidea.

10. artikuluan zehazten dira diru-laguntzen zenbatekoak eta lerroak:

1. Langabe orokorra: 3 hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora 3.000 €-z lagunduko da.

2. Sektorean enpleguratuak izateko pizgarri bereziak behar dituzten langabeak:

2.1. Hiru hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora emakume denari egin ezkerko 4.500 €-z lagunduko da.

2.2. Lanerako aurrekontratu proposamen bat behar dutenei eginez gero, 4.500 €-ko laguntza jaso ahal izango da.

Kasu honetan langabe orokorra izanik, 3.000 €ko dirulaguntza dagokio.

Aurkeztu ditu 11. artikuluan zehazten diren ondorengo agiri hauek:

11.1. Diru-laguntzaren eskabidea egiteko agiriak:

- Eskabidea (1. eranskina).
- Ordezkaritza egiaztatzea.
- Enpresaren IFK.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dagoen udalaren ziurtagiria.
- Kontraturiko pertsonari eginiko kontratu mugagabea.
- Kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta eman izanaren agiria.

11.2. Zuriketa eta ordainketak:

- Diruz lagundutako kontratuaren 3 hilabetei dagozkien nominak, apirila, maiatza eta ekaina.
- Dirulaguntzari dagokion epealdian (apirila, maiatza, ekaina) diruz lagundutako kontratuaren lansariak ordaindu direla egiaztatzen duen bankuko agiria.
- Maiatzeko RLC (TC1) eta RNT (TC2) aurkeztu dituzte.

Esta subvención está destinada a empresas con domicilio social o centro de trabajo en Gipuzkoa, para la contratación de personas desempleadas que hayan participado en el programa Auzolan Berri IV en la comarca de Beterri Buruntza y hayan superado dicho programa.

Serán personas beneficiarias las que hayan superado el certificado de profesionalidad de nivel 1 Operaciones básicas de revestimientos ligeros y técnicos en construcción e inscritas como demandante desempleado en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo a la hora de formalizar la contratación.

El artículo 5 de las bases de esta subvención establece que las resoluciones se dictarán en dos plazos:

– Una primera resolución con las solicitudes presentadas antes del 15 de julio de 2022 y que hayan formalizado las contrataciones.

– Una segunda resolución con las solicitudes presentadas antes del 30 de noviembre de 2022 y que hayan formalizado las contrataciones.

Dentro del primer plazo se ha recibido una solicitud de Gipuzkoaplak S.Coop Pequeña con registro de entrada el 14 de julio de 2022.

Se ha comprobado que la empresa solicitante cumple los requisitos establecidos en el artículo 3 para ser beneficiaria de esta subvención, así como los requisitos establecidos en el artículo 4 de la persona contratada.

La duración mínima de las contrataciones subvencionadas será de 3 meses a jornada completa. A la persona contratada se le ha realizado un contrato indefinido, a jornada completa y una vez transcurrido el plazo de tres meses han presentado la solicitud.

En el artículo 10 se detallan las cuantías y líneas de subvención:

1. Parado en general: el contrato de 3 meses o más se subvencionará con 3.000 € a jornada completa.

2. Personas desempleadas que requieran incentivos especiales para ser empleadas en el sector:

2.1. Se subvencionará con 4.500 € el contrato de tres o más meses realizado a una mujer a jornada completa.

2.2. En el caso de que a la persona que lo precise se realice una propuesta de pre-contrato de trabajo, se podrá percibir una ayuda de 4.500 €.

En este caso, tratándose de un parado general, le corresponderá una ayuda de 3.000 €.

Presenta los siguientes documentos que se detallan en el artículo 11:

11.1. Para realizar la solicitud deberá presentarse la siguiente documentación:

- Instancia (anexo 1).
- Acreditación de la representación.
- CIF de la empresa.
- Certificado de estar al corriente del Ayuntamiento donde este dado de alta en el IAE.
- Contrato indefinido a la persona contratada.
- Documento de alta en el régimen correspondiente de la seguridad social de la persona contratada.

11.2. Abono y justificación de las ayudas:

- Nóminas correspondientes a los 3 meses del contrato subvencionado, abril, mayo y junio.
- Documento bancario acreditativo del pago de las retribuciones del contrato subvencionado durante el periodo subvencionado (abril, mayo, junio).
- Presentan RLC (TC1) y RNT (TC2) de mayo.

Diruz lagundutako aldi osoari dagokion laguntzaren xede den kontratuaren RLC eta RNT aurkeztu behar dituzte, hau da apirila eta Ekainekoak falta dira eta honela adierazi zaie eginiko errekerimenduan.

Egindako kontratazioaren azken justifikazioa kontratazioa edota diruz lagundu daitekeen gehieneko aldia amaitu denetik gehienez ere hilabete eta erdiko epean egingo da.

Beraz agiri hauek aurkezteko epea abuztuaren erdian amaitzen da.

11. artikuluan ere adierazten da dirulaguntzari dagokion ordainketa bakar bat egingo dela, diruz lagundu daitekeen kontratazioa justifikatu eta onartu ondoren, gehienez ere hilabeteko epean.

ETA KONTUAN HARTURIK

– Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.

– Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008/07/01).

– Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

– Enplegua sustatu eta Auzolanberri IV programan dauden langabeak kontratatzeko dirulaguntza 2022 (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2022/04/04).

EBAZPENA

Lehenengoa. Auzolanberri IV programan dauden langabeak kontratatzeko 3.000 €-tako dirulaguntza onartzea ondorengo eskatzaileari:

– F15161067 IFK duen Gipuzkoaplak S.Coop pequeña Andoaingo enpresari.

Bigarrena. Ordainketa kontratazioa justifikatzeko falta zaizkien agiriak aurkeztu eta onartu ondoren egingo da, ordainketa bakar batean eta beti ere gehienez ere hilabeteko epean.

Hirugarrena. Diru-laguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.07.2022 (AD 1367/2022).

Laugarrena. Ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, eta baita ere Usurbilgo Udalaren webean.

Bosgarrena. Ebazpena enpresa onuradunari jakinaraztea.

Seigarrena. Kontu-hartzailetzari akordioaren berri ematea.

Deben presentar RLC y RNT del contrato objeto de la ayuda correspondiente a todo el periodo subvencionado, es decir faltan los de abril y junio y así se les indica en el requerimiento realizado.

La justificación final de la contratación se realizará en el plazo máximo de un mes y medio desde la finalización de la misma o del periodo máximo subvencionable.

Por lo tanto, el plazo para presentar esta documentación finaliza a mediados de agosto.

El artículo 11 también señala que el pago de la subvención se realizará en un único pago, previa justificación y aprobación de la contratación subvencionable, en el plazo máximo de un mes.

Y TENIENDO EN CUENTA

– Ley 38/2003, de 17 de noviembre, reguladora de las subvenciones.

– Ordenanza municipal reguladora de subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 01/07/2008).

– Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022 del Ayuntamiento de Usurbil.

– Promoción de empleo y ayudas para la contratación de personas desempleadas en el programa Auzolanberri IV 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 04/04/2022).

RESOLUCIÓN

Primero. Aprobar la ayuda de 3.000 € para la contratación de personas desempleadas en el programa Auzolanberri IV al siguiente solicitante:

– La empresa de Andoain Gipuzkoaplak S.Coop pequeña con CIF F15161067.

Segundo. El pago se realizará tras la presentación y aceptación de la documentación que les falte para justificar la contratación, en un único pago y siempre en el plazo máximo de un mes.

Tercero. La subvención se realizará con cargo a la partida presupuestaria 1.8000.480.231.03.07.2022 (AD 1367/2022).

Cuarto. La resolución se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la web del Ayuntamiento de Usurbil.

Quinto. Notificar la resolución a la empresa beneficiaria.

Sexto. Comunicar el acuerdo al interventor.